

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARRI NATURALEKO ELEMENTU BEREZIAK JARTZEA OBRAN	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF1112		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturala eraikinetan jartzea	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko elementu bereziak jartzea	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturaleko elementu berezien lanak eta zuinketa prestatzea	Iraupena	30
	Harri naturaleko elementu berezien doikuntza eta akaberak obran		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1376\_2 HARRI NATURALEKO ELEMENTU BEREZIAK JARTZEA gaitasun-ataleko LB6 lanbide-burutzapenarekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Elementu bereziak itsasgarri eta ainguren bitartez jartzeko prozesuak aplikatzea, jartzeko prozesuan esku hartzen duten material eta sistema desberdinak lotuz eta obraren gainekoarekin dagoen topaketa ebatziz, multzoaren eskatzen den soluzioa lortzeko.

E1.1 Elementu bereziak jartzeko erabiltzen diren lotura-sistema desberdinak (itsasgarriak eta/edo aingurak) identifikatzea, aplikazio arruntenak, zati bakoitzaren funtzioa eta abantailak eta eragozpenak adieraziz.

E1.2 Sistemen nahasketa-osagaiak bereiztea itsasgarritasuna, funtzioa, manipulazioa, erabilera, dosifikazioa eta fraguatzeko denborak eta baldintzak kontuan izanik.

E1.3 Lotura-sistema transmititu behar dituen esfortzu mekanikoei lotzea.

E1.4 Ainguraketa-sistemaren, zonaren eta harriaren ezarriaren egon behar duen geometriaren arabera identifikatzea.

E1.5 Euskarri batek harrizko elementu desberdinak jasotzeko izan behar dituen oinarriko betekizunak aipatzea, errore eta patologiarik arruntenak azpimarratuz.

E1.6 Elementu desberdinak jartzeko eraikuntza-prozesua deskribatzea: zuinketa, altxatzea eta esekitzea, morteroak prestatzea, aingurak jartzea eta abar, baliabide osagarriak eta beharrezko langileei lotuz.

E1.7 Makinak, erremintak eta lanabesak jardun jakin batean beharrezkoak diren trebetasun eta zehaztasunarekin erabiltzea.

E1.8 Eragiketa bakoitzean ager daitezkeen osasun-arriskuak identifikatzea, ezarri behar diren segurtasun-neurriak adieraziz, hala materialari nola langileei dagokienez.

E1.9 Jarri beharreko multzoa obraren gainerakoarekin lotzea, bisualki nahiz funtzionalki integratzeko beharrezkoak diren sistemak eta eragiketak adieraziz.

E1.10 Tratamenduren bat egitea aurreikusten diren puntuak eta zonak lokalizatzea, tratamendu hori aplikatzeko jarraitu beharreko prozesua adieraziz.

E1.11 Lanen egikaritzapen egokia definitzen duten kalitate-irizpideak aipatzea, obraren zati bakoitzarekin lotuz.

E1.12 Erabiliko diren hondakin-kudeaketarako prozedurak aipatzea.

E1.13 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, dokumentazio tekniko eta/edo lan-argibideak abiapuntutzat hartuz, ezarritako elementu berezia jartzea.

##### Edukiak:

##### 1. Harri naturaleko elementu bereziak jartzea itsaspen bidezko sistemen bitartez.

- Itsaspen bidezko sistemak: Morteroak eta erretxinak:
  - Motak, ezaugarriak, aplikazioak. Ahalmenak eta mugak.
  - Fabrikatzailearen dokumentazio teknikoaren interpretatzea.
  - Konposizioa.
  - Prestakuntza: dosifikazioa, manipulazioa.
  - Aplikazioa: fraguatzeko-denborak eta -baldintzak.
- Egikaritze-prozesuak eta -baldintzak.
- Ekipamenduak, erremintak eta materialak. Erabilera.
- Loturaren egonkortasun mekanikoa egiaztatzea.
- Topaguneen ebazpena:
  - beste material batzuekin.

- beste eraikuntza-elementu batzuekin.
- beste eraikuntza-tipologia batzuekin.
- Lotura-junturak. Prestaketa, garbiketa, tratamenduak.

## 2. Harri naturaleko elementu bereziak jartzea ainguraketa-sistemen bitartez

- Ainguraketa-sistemak:
  - Motak, ezaugarriak, aplikazioak. Ahalmenak eta mugak.
  - Ainguraketen dokumentazio teknikoaren interpretatzea.
  - Euskarrian eta harrian duten ezarrera (posizioa eta dimentsioak).
  - Jartzea.
- Egikaritze-prozesuak eta -baldintzak:
  - Euskarriko finkapena.
  - Harriko finkapena.
- Ekipamenduak, erremintak eta materialak. Erabilera.
- Loturaren egonkortasun mekanikoa egiaztatzea.
- Topaguneen ebazpena: beste material batzuekin, beste eraikuntza-elementu batzuekin eta beste eraikuntza-tipologia batzuekin:
  - beste material batzuekin.
  - beste eraikuntza-elementu batzuekin.
  - beste eraikuntza-tipologia batzuekin.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturala eraikinetan jartzea